MANDOBIDE, 6-3
BILBAO 48007
94 405 64 50

idazkaritza@sabinoarana.org
www.sabinoarana.org

“MUGAZGAINDIKO LANKIDETZAK EUROPA INTEGRATZEKO PROZESUAN DUEN ESANAHIA: GAUR EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNERAKO IKUSPEGIAK”.

2014ko azaroaren 21a, ostirala, Hondarribiko Itsas Etxea

Europar herritarren % 10 inguru mugazgaindikotzat jotzen diren hiri-eremuetan bizi da; eremu horiek Europar Batasunaren lurraldearen azaleraren % 15 dira.

Lisboako itunaren ondoren, europar kohesio-politikaren hiru harroinetako bat lurralde-kohesioa da, kohesio ekonomikoarekin eta gizarte-kohesioarekin batera, alegia. Lurralde-kohesioa presente dago, halaber, Europa 2020 Estrategian. Lehiakortasuna eta oparotasuna lurraldearen aktibo-erabileraren mendean daude, zehatzago esanda, halako lurralde zehatz batean bizi diren biztanleek eta eragile sozioekonomikoek haren aktibo batzuen erabilerarik onena egiteko duten gaitasunaren mendean.

Bestalde, 2014-2020 epealdian mugaz gaindiko lankidetzak, Europar Batasuneko lurralde-lankidetzarako erabiliko diren komunitate-baliabideen guztizkoaren (8.948 milioi euro) % 74 jasoko du, hau da, 6.627 milioi euro.

Gaur egungo gizarteak bizitzen dituen eraldaketa sakonek erraztu egiten dute lankidetza hori trinkotzen joatea, bereziki Europar Batasunaren esparruan. Globalizazio gero eta handiagoa, estatuz gaindiko integrazioa eta deszentralizazioa mugaz gaindiko lankidetza bultzatzen duten indar-ildoak dira, halako testuinguru batean non, Estatuaren kontzeptua berriz aztertzen ari baita. Hain zuzen ere, mugaldeko izatearen estigma hori duten estatuak, herriak eta lurraldeak europar integrazioaren bide horrexetan ari dira euren arteko berrelkarraldi bereziak aurkitzen.

Mugazgaindiko lankidetzaren ezaugarri ohikoenak izaten dira geografiaren jarraitutasuna, arazo komunak egotea eta, batzuetan, elkarrekin bizi izandako historia, mugaren kontzeptu klasikoa desagertzen ari den testuinguru batean.

Joan den mendeko berrogeita hamarreko urteetan Europa iparraldeko herrialdeetan egin ziren lehenengo mugazgaindiko lankidetzen esperientziez geroztik, mugazgaindiko lankidetza areagotzen joan da, eta horretan nahikoa zerikusia izan du europar integrazioaren bizkortzeak.

Baina, zein da mugazgaindiko lankidetzako politikaren oraina?, eta zein geroa?. Mundu guztian denok ikusten ari garen bezala, gune geopolitikoak birdefinitzen ari direlarik, esan ote daiteke muga-ezabatzeak gertatzen ari direnik?, eta kasu horretan, zein da mugazgaindiko lankidetzaren eginkizuna?, zein da eskualdeen eginkizuna?

SABINO ARANA FUNDAZIOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN ERREGISTROAN (GENDATUTA, ERREGISTROA 156, HEZIGARREN SEKZIOA, INSCRITA EN EL REGISTRO DE FUNDACIONES DEL PAIS VASCO. REGISTRO 156, SECCIÓN TERCERA. IFK/CIF: G48275077

Arreta gehienbat Europar Batasunaren esparruan ipiniko delarik, mintegi honetan zehar saiatuko gara jakiten zein den mugazgaindiko lankidetzaren lan-eremua, zeintzuk diren EBaren ikuspegia eta helburuak arlo horretan eta zeintzuk tresna juridiko dauden baliatu ahal direnak; era berean, arrakasta izan duten kasu batzuk aztertuko ditugu; aztertuko da zeintzuk diren aipatu lankidetza garatzerakoan dauden arazo nagusiak, kide instituzionalen arteko asimetriatik eta finantza kontuetaraino, lankidetzaren eragileen edo estatuen euren arteko mesfidantza tartean; epe luzerako estrategiarik eza edo sektore-politiken arteko eta dauden instituzioen arteko inkoherentzia, edo kohesiorako europar finantzazio-programak egokiro eta koherentziarekin ez erabiltzea. Mugazgaindiko lankidetzako erakundeen barruko gobernantza kontua. Era berean, mahaietako batean euskal mugako errealitatea aztertuko da, konplexutasun itzel batek ezaugarritua berori, hala gobernantza horizontalean nola bertikalean.

1.- **Mugazgaindiko lankidetza-politika Europar Batasunean**. Lurralde-kohesioan du abiapuntua. Mugazgaindiko lankidetzaren tresna juridikoak. Europar Lurralde Lankidetzarako Taldea (ELLT) deritzona. Balantzea eta etorkizuneko aukerak. Euopar Batzordearen araudia eta Europar Kontseilua. Espainiako eta Frantziako konstituzioen esparruak. Praktika eta zuzenbidea erkaturik.
Hitz gakoak: lurralde-kohesiorako politika, MGGLren oinarriak eta izateko arrazoia, merkatu bakarra, maila askotako gobernantza, ELLT, partzuergoa.

a) MGGLrako politika EBean: historia, tresna politikoak, helburuak eta etorkizuneko bilakaera.
b) MGGLrekiko eta Europar Batzordearen Kohesio Politikarekiko ikuspegia. Erronkak eta aukerak.
c) MGGLrako tresnak.

2.- **Lankidetza euskal mugan**. Dauden egituren ugaritasuna eta konplexutasuna. Epe luzerako estrategia baterantz eta dauden eragileen arteko koherentzia. Sektorekako mugazgaindiko lankidetza.
Hitz gakoak: lankidetza-beharra, arazoak eta irtenbideak, eragile-ugaritasuna, estrategia, koherentzia, asimetria, kultura, auzo-mugaldea.

a) Lankidetzarako egituren ugaritasuna euskal mugan: deskripzioa eta balantzea. Koherentzia eta eraginkortasuna helburu.
b) Akitania-Euskadi: Funts Komunetik ELLTra. Euroeskualdearen estrategia. Barne kohesio hobea eta EBarekiko kohesio hobea xede
c) Atlantikoko Piriniozgaindiko Batzarra: Maila anitzeko gobernantza auzo-mugaldean

3.- **Europako beste eskualde batzuetako mugazgaindiko lankidetza**ren adibideak. Historia. Helburu eta ezaugarri nagusiak.
Hitz gakoak: historia, arazo zehatzak, forma juridikoa, gobernantza, estrategia

a) Alpeak-Mediterraneoa euroeskualdea
b) DE-NL euroeskualdea